

Tribuaren lehen lerroan

“Hunkituta gaude. 25. urteurrena da eta sari honek garrantzi berezia du guretzat”. Kike Amonarrizek ederki deskribatu du aurtengo Argia Sarietan sortu den giro berezia. Atzera begiratua egin zen, baina aurrera egiteko prestutasun osoz.

| URKO APAOLAZA AVILA |

Argazkiak: Dani Blanco

ATXEGA JAUREGIA euskalgintzako eta euskal komunikazioko eragileen bilgune bihurtu zen berriz ere urtar-
rrilaren azkeneko ostiralean.

Aurten giro berezia sortu da, sarien 25. urteurrena izan baita. Hori ospatzeko hainbat sorpresa izan zituzten gonbidatuek. Bazkalarettik Olatz Korta ARGIAko kideak espresuki edizio honetarako prestatu-
turiko kanta abestu zuen, Aitor Furundarenaren laguntzaz: ...*Etor-
kizunari begira / egokituz, garai berrira /
emeki goaz aurrera / egina dugu aukera...*
Halaxe dio Kortaren letrak. Abestia entzun nahi duenak webgunean aurkituko du.

Bazkalostean, kafearen orduan, Unai Break eta Olatz Kortak sari banaketari hasiera eman zioten. Lehenik, Estitxu Eizagirreraren hitzaldia etorri zen (ikus 45. orrialdean laburpena) eta ondoren 25 urteotako argazki zahar eta berriekin egindako bideo musikatua. Sariatuen izenak isilpean gordetzen dira, ikusmina handia izan ohi da irratian eta interneten. #argiasariak14 hashtag-a Twitterreko euskal erabiltzaileen artean aipatuena izan zen egun horretan.

Sarituek txalo zaparrada artean jaso zituzten Anton Mendizabalek egindako ikurrak. Interneteko saria irabazi duen Topatu.info-ren izenean hitz egin zuen Iraitz Salegik: “Gazteei hitza ematearena gaizki interpretatzen dela iruditzen zaigu, hitza eman baino, jarrera nahiko parternalistak ditugu. ARGIAk ariketa zintzoa egin du eta gazteak anekdota huts izatetik lehen lerroan kokatu ditu”.



Zutik: Eneritz Arzallus (Topatu.info), Eider Olazar Elduaen (Info7), Maite Asensio (Berria), Kike Amonarriz (Tribuaren Berbak, ETB1). Makurtuta: Iratitz Salegi (Topatu.info), Xabier Gojenola (ErriGora) eta Peru Aranburu (ErriGora).

Maite Asensio *Berriako* kazetariak prentsa ataleko saria jaso zuen. Egunkari horretako orrialdeetan indarkeria molde anitzak salatzeko “urratsa eta ausardia” izan duten emakumeak edukizituen gogoan: “Sari honek adierazten du emakume horiek ez dardela bakarrik euren borrokan. Mila esker ARGIAri hau lehen lerroan jartzeagatik”.

Publizitate alorreko saridun Erri-Gora ekimeneko Peru Aranburuk eskerrak eman zizkion ErriGoraren ideiari forma ematen hasi zirenean

“inolako bermerik gabe atea zabaldu zizkigutenei” eta parte-hartzaile guztiei.

Eider Olazar Elduaiek, berriz, Info7ko *Kalegorrian* saioko “ehun kolaboratzaileei” eskerrak emanaz hartu zuen irratia ataleko saria.

ETB1-eko *Tribunaren Berbak* telebista saioari emandako saria jaso zuten Kike Amonarrizek eta lantalde osoak. Hunkituta azaldu zen aurkezlea, bai sariarengatik eta baita saioa egiterakoan aurkitutakoagatik: “Tribua zenbat eta gehiago ezagutu, gero eta harroago gaude tribuarekin”. ■